

Suak itzaltzen baino gehiagotan

Erakargarria bezain beldurgarria izaten da sua. Indar suntsitzaile paregabea du, eta errauts bihurtzen du harrapatzen duen guztia. Horrela begiratuta, heriotzaren metaforatzat har liteke, baina suaren epela bizigarri ere bada, eta bizitzaren metafora. Ordea, sua epeletik berora igarotzen denean, eta harrotzen eta harrotzen hasten denean, aurre egin behar izaten zaio, eta horretarako daude suhiltzaileak. Augusto enperadoreak sortu zuen lehenengoz suaren aurka borrokatuko zen talde profesionala, prebentzio-lanak egin zitzaizkion, arriskuak antzeman eta aurre egin. Guganaino iritsi da lanbidea, ospe eta autoritate handikoa. Suaren aurkako lanean jarraitzen dute gaur egun ere, baina beste zenbait funtzio ere betetzen dituzte. Erantzukizun handiko lana da, badenez!



Prebentzio-lanak egin. Duela hamarkada batzuk, suari lotutako larrialdiei erantzutea zen suhiltzaileen zeregin ia bakarra. Mende honetan, mehatxu horren ondorioei aurre hartzea da beren lehen helburua, eta zabaldu egin dute jardueraren eremua. Hiru printzipio nagusi gidatzen ditu suhiltzaileak: lastertasunak, eraginkortasunak eta proportzionaltasunak, eta horien arabera finkatzen dituzte zereginak. Pertsonak, ondasunak eta ingurumena babestea dagokie, eta horiei kalteren bat sortzen ahal dieten arrisku-elementu orori erreparatu behar izaten diete. Gas-ihesen bat sumatu orduko, agudo antolatuko dute irteera teknikoa, eta berdin likido toxikoren bat isurtzen bada, haizeak hondamendiren bat eragin dezakeela sumatzen badute, edo uholde arriskua ikuste badute.

Ikuskatu. Suhiltzaile taldeen ardura bihurtu da hainbat gunetan arauak betetzen ote diren aztertu eta zaintzea: lokaletan, eraikinetan, ur-hornidurako sareetan, bai hiri inguruetan, landa eremuetan, industrian eta basoetan.

Beren lana da, halaber, arrisku larria sor dezaketen egoerei aurre egiteko prebentzio-neurriak zein izan daitezkeen ikustea eta probak egitea, baita larrialdi-planak prestatu eta abian jartzea ere.



Laguntza eman. Errepide istripua izan duten pertsonak istripu lekutik ateratzea eta mendian, ibaian edo leize-zuloetan galdu diren pertsonak aurkitu eta salbatzea ere bada suhiltzaileen egitekoa. Programatu gabeko osasun laguntza ematen dute, eta hil edo biziko egoerak gainditzen dituzte zenbaitetan. Lehen laguntza ematen diete suhiltzaile taldeek istripua izan duenei edo gaixoei, eta beharrezko bada, osasun zentroetara eramaten dituzte.



Esku hartu. Haitin lurrikara gertatu ondoren suhiltzaileena izan zen hara iritsi zen lehen talde koordinatua. Prebentzio eta funtzio bereziak dituzte, eta eurak joaten dira hondamendiren bat jasan duten lekuetara, eta koordinatuta aritzen dira beste zenbait esku-hartze zerebitzuekin. Lehenbiziko zereginak egiteko ardura dute, zuzeneko lanak, eta, horregatik, euren esku geratzen dira hasierako maniobrak. Leku horietatik irteten, berriz, azkenak izaten dira, haiei dagokie eta zerebitzu publiko oinarrikoak lehengoratzeko ere.

Itzali. Suari aurre eginez eta bizia arriskuan jarriz jarraitzen dute suhiltzaileak. Araudi zorrotzei eta prebentzio-lanei esker, asko gutxitu dira hirietako eta industrietako suteak, baina uda aldean, izugarriko suteak izaten dira baso eta mendietan. Suteen aurkako brigadak izaten dituzte laguntzaile halakoetan, baina guztien artean ere, ezin izaten dute saihestu hainbat hektarea erretzea. Herritarren konpromisoak, norberaren arretak eta zuhurtziak soilik lortuko dute hori.



GEHIAGO JAKITEKO
www.consumer.es